

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak TSJNk egungo errealitate politiko eta soziala eraikitzeko emandako laguntza azpimarratu du

Nafarroako Justiziaren "eraginkortasuna eta profesionaltasuna" nabarmendu ditu gainera, Foru Komunitateko organo judicial gorenaren 25. urteurrenean

Viernes, 23 de mayo de 2014

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak [Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak](#) (TSJN) egungo errealitate politiko eta soziala eraikitzeko emandako laguntza azpimarratu du Foru Komunitateko organo judicial gorenaren sorreraren 25. urteurrena ospatzeko egindako [agerraldian](#).

Ehun pertsona baino gehiagoren aurrean, haien artean zeuden Nafarroako instantzia judicial, politiko, akademiko eta militarreko ordezkariak, Yolanda Barcinak aipatu du Justiziako Auzitegi Gorenak "gure egungo estatuaren funtsezko elementu" bihurtu direla araudiaren aplikazio nahiz interpretazioarekin.

Horregatik, eskerrak eman dizkie beren lanarekin Espainia eta Nafarroa "errealitate demokratiko aurreratuak izaten lagundu dutelako eta baita legea nahiz zuzenbidearen nagusitasuna herri-borondatearen adierazpide diren gizarteak bihurtzen laguntzen ere".

Foru Komunitateari erreferentzia eginez, Lehendakariak Nafarroako Justiziaren "eraginkortasuna eta profesionaltasuna" azpimarratu ditu. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) egindako azken txostenaren arabera, 2013. urteari dagokiona, auzitegi eta epaitegi nafarrek erabakitzeko dauden gaien tasa txikiena izaten jarraitzen dute Espainian, bai eta pilatutako prozedura-tasa txikiena ere.

Nolanahi ere, adierazi du Justiziak bere egiturei "malgutasun eta arintasun" handiagoa eman behar diela, bai eta "deszentralizazio handiagoa" ere erabaki txikietan, langileen kudeaketan, esate baterako. "Hori guztia –zehaztu du– frogatutako gure leialtasun eta eraginkortasunaren babesarekin".

Ospakizuna

Iruñeko Justizia Jauregian egindako ekitaldiaren helburua, 1989ko



Barcina Lehendakaria TSJNren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldian egindako agerraldian.

maiatzaren 23an Espainia guztian sortutako 17 Justizia Auzitegi Nagusien sorreraren 25. urteurrena ospatzea izan da, eta Nafarroako ordezkari gorenak parte hartu dute bertan.

Ospakizuna Konstituzio Auzitegiko epaile Juan Antonio Xiol-ek emandako hitzaldiarekin hasi da. "Botere judiziala estatu konposatuan: esperientziak eta ikuspegiak" izeneko hitzaldia eman du.

Jarraian esku hartu dute: TSJNko gobernuko idazkari Francisco Javier Isasik; Foru Komunitateko fiskal goren José Antonio Sánchez-ek; TSJNko lehendakari ohi Rafael Ruiz de la Cuesta eta Juan Manuel Fernández-ek, azken hori gaur egun Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko kide da; eta Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak. Saioari TSJNko jarduneko lehendakari Víctor Cuberok eman dio amaiera

Astean zehar, bisita gidatuak antolatu dira eta haietan bertaratuek Iruñeko Justizia Jauregiko gela nagusiak ezagutu ahal izan dituzte: ziegak, atxilotuak identifikatzeko gela, epaiketa nagusiak egiten diren epaiketa-aretoa, epaimahaiak erabakiak hartzen dituen gela, prentsa-bulegoa...

TSJNk Iruñean du egoitza eta Nafarroako lurralde-eremuko organo judizial gorenena da; nolana ere, Auzitegi Gorenari eta Konstituzio Auzitegiari dagokien jurisdikzioa errespetatzen da, eta Estatuko Botere Judizial bakarreko egitura orokorrean sartuta dago.

Argazki-oina (ezkerretik eskuinera): José Antonio Sánchez, Juan Manuel Fernández, Víctor Cubero, Yolanda Barcina, Juan Antonio Xiol eta Joaquín Galve.